ZIGOITIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

Javier Gorbeña García (1 de 1)
Alcaldía
Fecha Firma: 29/05/2024
HASH: cb036ca3195015866195a5f6737a28db

**Nº expediente**: 313/2024.

**Procedimiento**: Organización de la Eguzki jaia 2024

## IRAGARKIA

**2024ko uztailaren 26, 27 eta 28an Bengolarrako parkean txosnak jarri nahi dituztenek, Eguzki Jaia dela eta, udal bulegoetan edo udalaren egoitza elektronikoan (https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/info.0) egin ahal izango dute eskaera orokorra, 2024ko uztailaren 12ko 14:00ak arte.**

**Instalazioa baimentzen denean, pertsona edo erakunde eskatzaileak fidantza ordaindu izanaren eta, hala badagokio, hartune elektrikoaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.**

**Instalatzeko baldintzak:**

- **400 €ko fidantza ordaindu, Udalaren edozein banku-kontutan sartuta (Kutxabank ES63 2095 3224 24 1095220256 edo Laboral Kutxa ES21 3035 0143 75 1430024035).**
- **Hartune elektrikoa erabili izango da, hala eskatuz gero, eta txosna bakoitzeko 60 € ordainduko dira adierazitako banku-kontuetan, aparteko ordainagirian.**
- Txosna, antolatzaileek adierazitako lekuan kokatuko da, eta txosnen arteko tartea 2 m-koa izango da.
- Muntatzea, desmuntatzea eta alokatzea, hala eskatzen bada, pertsona edo erakunde eskatzailearen kontura izango da. Instalazioa uztailaren 23tik 24ra bitartean egingo da, eta desmuntaketa uztailaren 29tik 30era bitartean.
- Instalazioek beharrezko baldintza teknikoak bete beharko dituzte (egituraren sendotasunari, prebentziorako neurriei eta suteen aurkako babesari dagokienez) pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko eta bizilagunei eragozpenik ez sortzeko.
- Debekatuta dago txosna barruan 18 urtetik beherakoak egotea edo lanean aritzea, gurasoen edo legezko tutoreen baimena duten 16 urtetik gorakoak eta 18 urtetik beherakoak izan ezik. Debekatuta dago, halaber, 18 urtetik beherakoei edari alkoholdunak saltzea edo banatzea.
- Erabat debekatuta dago edariak beirazko ontzietan ematea.
- Lekua garbi utzi beharko da dantzaldia edo kontzertua egin eta hurrengo goizean; horretarako, sortutako zaborrak bilduko dira eta horretarako gaitutako edukiontzietara eramango dira.

## ANUNCIO

**Las personas interesadas en instalar txosnas en el parque de Bengolarra los próximos 26, 27 y 28 de julio de 2024, con motivo de la fiesta del municipio "Eguzki Jaia" podrán solicitarlo en las oficinas municipales o en la sede electrónica municipal (https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/info.0) utilizando la instancia general hasta el próximo 12 de julio de 2024 a las 14:00 horas.**

**Cuando se autorice la instalación la persona o entidad solicitante deberá presentar el justificante de ingreso de la fianza y el de la toma eléctrica, en su caso.**

**Condiciones de instalación:**

- **Abono de fianza por importe de 400€, a ingresar en cualquiera de las cuentas bancarias del Ayuntamiento (Kutxabank ES63 2095 3224 24 1095220256 o Caja Laboral ES21 3035 0143 75 1430024035).**
- **Se dispondrá de toma eléctrica, si así se solicitase, abonando 60€ por txosna en recibo independiente en las cuentas bancarias indicadas.**
- La txosna se ubicará en el lugar señalado por la organización, con una separación entre txosnas de 2m.
- El montaje, desmontaje y alquiler, si se requiriese, será a cargo de la persona o entidad solicitante. La instalación se realizará entre el 23 y 24 de julio y el desmontaje entre el 29 y el 30 de julio.
- Las instalaciones deberán reunir las condiciones técnicas necesarias (en cuanto a solidez de la estructura, medidas de prevención y protección contra incendios) para garantizar la seguridad de personas y bienes, y evitar molestias al vecindario.
- Queda prohibida la permanencia y ejecución de trabajos en el interior de la txosna de los menores de 18 años, salvo los mayores de 16 y menores de 18 años que cuenten con la autorización de sus progenitores o tutores legales. También queda prohibida la venta o suministro de bebidas alcohólicas a menores de 18 años.
- Queda terminantemente prohibido dispensar bebidas en envases de vidrio.
- El emplazamiento deberá quedar limpio la mañana siguiente de la celebración de la verbena o concierto, para lo cual se recogerán las basuras generadas llevándolas a los contenedores habilitados.

Cód. Validación: 6CJCX4NKY3S4XLJE66GN3SRPR
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 2

ZIGOITIA
UDALA-AYUNTAMIENTO

- Ixteko ordua goizeko 06:00etan ezartzen da.

- Eskatzaile bakoitzak, **jaiak hasi aurretik, erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia aurkeztu beharko du udaletxean,** kalte materialak edo pertsonalak estaltzeko.

- Instalazio-baimenen kopurua mugatuta egongo da, kokapenerako dagoen lekuaren arabera. Eskaeren kopurua dagoen lekua baino handiagoa bada, lehentasun-irizpide hauen arabera emango dira baimenak:

1. Pertsona edo erakunde eskatzailea Zigoitian erroldatuta egotea edo bertan egoitza soziala izatea.
2. Instalatzeko eskaera urte gehiagotan egin izana.
3. Eskaera-hurrenkeraren arabera.

- La hora de cierre se establece a las 06:00 de la mañana.

- Cada solicitante, antes del inicio de las fiestas**, deberá presentar en el Ayuntamiento copia de la póliza del seguro de responsabilidad civil** para cubrir posibles daños materiales o personales.

- El número de autorizaciones de instalación estará limitado por el espacio disponible para su ubicación. Si el número de solicitudes fuera superior al espacio disponible, se concederán las autorizaciones atendiendo a los siguientes criterios de prelación:

1º. Que la persona o entidad solicitante esté empadronada o tenga su sede social en Zigoitia.
2º. Haber cursado la solicitud de instalación un número mayor de años.
3º. Por orden de solicitud.

SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE.

Cód. Validación: 6CJCX4NKY3S4XLJP66GN3SRPR
Verificación: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 2